



*Bigarren Lehendakarioordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua  
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

**BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUAREN 2022KO APIRILAREN 7KO AGINDUA; HONEN BIDEZ BERMATZEN DA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO LEHEN MAILAKO ARRETAKO ZENTROETAKO/EREMUETAKO LANGILEAK, ETENGABEKO ARRETAKO GUNEA BARNE, GIZARTEARI EMATEN DIZKIOTEN FUNTSEZKO ZERBITZUEI EUTSIKO ZAIELA, APIRILAREN 8RAKO DEITUTAKO GREBAN.**

SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuen ordezkariak greba-deialdia egin dute Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren lehen mailako arretako zentroetan/eremuetan, etengabeko arretako gunek barne (EAG) lantokietan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, zerbitzuak ematen dituzten langileentzat. Greba 2022ko apirilaren 8ko 7:00etatik 2022ko apirilaren 9ko 7:00etara deitu da.

Bigarren lehendakarioorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2022ko apirilaren 6ko Aginduaren bidez, greba horretara deitutako langileek komunitateari ematen dizkioten funtsezko zerbitzuak bermatzeko beharrezkoak diren gutxieneko zerbitzuak ezarri dira.

Agindu horren xedapen-zatian, Call Center zerbitzuetan, gutxieneko zerbitzu hauek finkatu dira:

*III. Araba ESI, Donostialdea ESI, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESI, Bilbo-Basurtu ESI, Uribe ESI, Debabarreneko ESI, Bidasoa ESI eta Tolosaldea ESI erakundeetako Call Center zerbitzuetan, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen % 50.*

OSAKIDETZAK, gaur bertan jakinarazi du, Barakaldo-Sestao eta Barrualde-Galdakao OSletan ere ezarrita dagoela Call-Centre sistema. Sistema hori, osasun arreta ematen ez badu ere, zerbitzu hori benetan ematea ahalbidetzen du, erabiltzaileak arreta horrekin duen lehen kontaktua delako eta bereziki nabarmena delako osasun-aholkuari dagokionez.

Beraz, 2022ko apirilaren 6ko Aginduaren azalpen-zatian jasotzen diren inguruabar eta justifikazio berberetan oinarrituta, sistema hori ezarrita duten gainerako OSletako Call Center zerbitzuetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeari buruzkoa, horietara jotzen dugu berariaz, eta, prozedura-ekonomiagatik, errepikatutzat jotzen ditugu, Barakaldo-Sestao eta Barrualde-Galdakao OSlen zerbitzuetan gutxieneko zerbitzuak finkatzea beharrezkoa da.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalaren arabera, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak xedatzen duen eskumen delegatuak egikaritzea dagokio, zerbitzu publikoak edo premia bizia eta atzerazina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetutako eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari hartuta, honako hau:

#### **EBAZTEN DU:**

**LEHENENGOA.-** Aldatzea bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2022ko apirilaren 6ko Agindua, zeinaren bidez bermatzen baita OSAKIDETZA – Euskal Osasun Zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Zentro/arloetako langileek, Etengabeko Arretako Guneak (EAG) barne, 2022ko apirilaren 8an deitutako greban komunitateari ematen dizkieten funtsezko zerbitzuak mantenduko direla, eta honela zabaltzea:

Barakaldo-Sestao eta Barrualde-Galdakao OSlen Call Center zerbitzuetan, normalean zerbitzu horiek ematen dituzten langileen % 50.

**BIGARRENA.-** Mantendu egiten dira 2022ko apirilaren 6ko Aginduan ezarritako gainerako zerbitzu minimo guztiak.

**HIRUGARRENA.-** Agindu hau jakinarazten den egunean jarriko da indarrean.

**LAUGARRENA.-** Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.



Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA  
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**